



# IKASTOLA ETA UNIBERSITATEA

MIKEL UGALDE

Gaia serio samarra duzu, irakurle; baina aurtengo alea gai honi eskaini diotenez gero, ikastola gogoan hartuaz zenbait gogoeta azaldu nahi nuke.

## IKASTOLAK I - JAKINTZAK I

Ikastolak joko gogor bat zeukan irabazi beharrezkoa. Ikastola martxan jarri zenean bazen kezkarik asko. «Euskaraz hezitako haurrak nola erantzungo ote du?» galdetzen zuen askok. Izan ere jakintza mailan atzera geldituko ote zen bildurra bazen zenbaiten artean.

Gaurregun nahiko lasai gaude alderdi horretatik. Gaurko ikastolek ez dute beste inongo ikastetxeen ezeren lotsaizunik. Legeak agindutako gaiak, eskatzen duen neurri maila, ongi betetzen du ikastolak. Euskaldun bezala hezitako gazteak badabiltza unibersitatean eta ez dute ezeren atzerapenik izan.

Azken aldi honetan ikastolak egin duen gorakada ikusi besterik ez dago. Jende askok eta askok gaurregun ikastolara haurrak bidaltzen baditu batez ere jakintza mailan garantia bat izango duelako da. Eta hori ere beharrezkoa zen. Baina orain emandako pausoak jarraipen bat eskatzen du.

## EUSKAL KULTURAK 0 - UNIBERSITATEAK 1

Bigarren joko honetan galtzen goaz. Euskal kulturak, folklore mailatik, nekazari haroko kultura girotik irten era beste pauso haundiago bat eman beharrean aurkitzen da. Beharrezkoa dugu euskara, beharrezkoa dugu orain artean egin den guztia, baina beharrezkoa dugu, baita ere, orain egungo gizarteari, industria haroari eta batez ere geroari, erantzun dezaiokoeen euskal kultura.

Hogeigarren mendeko kulturaren jabe izatera iritsi behar dugu, eta kulturaz hitzegiterakoan ez dugu jakintza maila soiletan mugatzen. Eta euskaldun garenok, euskal kultura behar dugu, euskararen ardatzpean hezuramamitutako kultura. Euskara etxerako eta erdara gainontzekorako, hori amaitu da, edo amaitu behar du behinik behin.

Unibersitateari tanto bat gehiago eman diogu. Azken momentean irabazi duen tantoa. Ez noski unibersitateez ongi horniturik gaudelako euskararekin eta euskal kulturarekin konparatuz gero diferentzia nabarmena dugulako baizik.

Estadistikek, erdi mailan ikasten diharduten haurren ugaritasunak herri bati zor zaion kultura mailak, eta abar unibersitate bat eskatzen du. Hemen halako fakultade batzuk, besteren morroi ta akolito dauzkagun fakultadeak, badaude. Hortik aurrera ezer ez.

Hogei millatik gora dira Gipuzkoako ikastoletan ikasten dihardutenak. Hauetako batzutan batxiller

pausoak ematera doaz. Lehenago balantzaka zebilen haurra, orain gazte loratua eta indarrean dakusgu. Eta haur hauek laster, guk uste baino lehenago, unibersitatean ikusiko ditugu. Nongo unibersitatean? Zer kondiziotan?

Preeskolarra, parbularioak, lehen etapako heziera, bigarrena gero, batxillerra ondoren... bidea aldapatsua izan da, oztopoak ez dira falta izan. Haseran uste ez bezalako bideak igaroak ditugu, eta ikastolako haurrak, batxillerrean zehar, ongi prestatuko direlakoan gaude. Ikastolak badu bere garra, bere dinamika eta laster paretara enbidatzeko moduan izango gara media txar batzukin besterik ez bada ere.

## UNIBERSITATEAK 1 - EUSKAL HERRIGINTZAK 1

Orain artean beste partido hau kanpoan jokatu beste erremediorik ez dugu izan, eta horregatik nahiko estimagarria da orain arteko enpatea. Euskaldun ikasleak hor dabilta Zaragozan, Valencian, Barcelonan, Madriden, Oviedon, eta abar, eta abar. Eta kanpoan daudelarik euskal nortasunari eusten eutsi diote. Batzuk euskara ikasten ahalegindu dira, besteak euskal kultura aztertzen, beste batzuek historia eta gizarte lanak Euskalerrinari dagokionez egoki erazten. Lanik egin da eta ez gutxi. Hor daude uda unibersitateak adibide bezala. Donibane Lohitzunen eginak aipamen berezia merezi dute.

Urtero urtero bai ikasleak bai irakasleak, elkaturik, lan bikainik eginga dute ipar aldean. Uste baino onurakorragoa izan da hori ez bairik gabe.

Zientzia mailan ere euskara gaurkotzen eta egungo eskakizunetara moldatzen serio ari zaizkigu elhuyartarrak. Jakinek argitaratuko dituen hiztegiak laguntza baliagarriak eskainiko digute. Gero eta erraztasun haundiagoak izango ditugu. Zailena, dudarik ez dago, lortu dugu: kanpoan jokatu beharrezko partidoa enpatean gelditzea. Orain etxeko jokoa prestatu behar eliminatoria irabaziko bada.

## EUSKAL HERRIGINTZAK- HERRIGINTZAK ?

Partidoa oraindik jokatzen hasi berriak gara, eta ez dugu bere ondoriorik eskaintzerik oraingo. Jokoa irabazteko ordea, guztion elkartasuna beharrezkoa dugu.

Beharrezkoa dugu elkartasuna, beharrezkoa dugu unibersitatea.

Hemengo unibersitateari halako berezitasuna eskatuko genioke. Bertako unibersitatea, bertako arazoari erantzun bat eskaini dezaiokoeana, herrikoia, langilearen seme eta alabar onar dezakeen unibersitatea. Gehitu eskatzea ere bada, oraingo. Baina ikastolatik datozen ostikolariek jokoa irabaziko duten esperantzarik ez dugu galtzen.

